

DANTZAN BILAKA 2020  
DANTZAN BILAKA 2020  
DANTZAN BILAKA 2020

## Urriak 9-10-11 Octubre 2020

Sorkuntza koreografikoa: aurkezpenak, elkarrizketak eta lanegiak.  
14. edizioa

*Creación coreográfica: presentaciones, charlas y talleres.*  
14<sup>a</sup> edición

**Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao**

## Urriak 9 Octubre Ostirala | Viernes

### 17.30 **Jarduera paraleloa | Actividad paralela**

EL PRINCIPIO ES COSA EXTRAÑA

**Ana Buitrago (Granada)**

Erabilera anitzeko Aretoa / Sala polivalente

Sarrera doan lekua bete arte

*Entrada libre hasta completar aforo*

**+info** p. 52 orr.

### 18.45 **Aurkezpena | Presentación**

DOLOREX

**Eneko Balerdi Eizmendi**

-1 SOLAIRUKO Bastida Aretoa

*PLANTA -1 sala Bastida*

Iraupena: 20 minutu, hiru orduz etengabe

*Duración: 20 minutos, se presentará*

*ininterrumpidamente durante tres horas.*

**+info** p. 18 orr.

### 19.25 **Aurkezpena | Presentación**

CARNEVAL

**Marina Suárez - Maria Stadlober**

Erabilera anitzeko Aretoa / Sala polivalente

**+info** p. 42 orr.

### 20.00 **Aurkezpena | Presentación**

BISONTE BAT BIHOTZ ERIARENTZAT

**Gorka Gurrutxaga - Nerea Gurrutxaga**

1.SOLAIRUKO Lanegi 1 / *Lanegi 1 1<sup>a</sup> PLANTA*

**+info** p. 26 orr.

# Urriak 10 Octubre

Larunbata | Sábado

- 12.00 – 17.00 Aurkezpena | Presentación**  
IZZADII!  
**Leire Amonarriz**  
-1 SOLAIRUKO Bastida Aretoa  
*PLANTA -1 sala Bastida* **+info** p. 14 orr.
- 17.30 Jarduera paraleloa | Actividad paralela**  
EL PRINCIPIO ES COSA EXTRAÑA  
**Ana Buitrago (Granada)**  
Erabilera anitzeko Aretoa / *Sala polivalente*  
Sarrera doan lekua bete arte  
*Entrada libre hasta completar aforo* **+info** p. 52 orr.
- 18.45 Aurkezpena | Presentación**  
IZZADII!  
**Leire Amonarriz**  
-1 SOLAIRUKO Bastida Aretoa  
*PLANTA -1 sala Bastida* **+info** p. 14 orr.
- 19.25 Aurkezpena | Presentación**  
AHOTSAK  
**Ziomara Hormaetxe**  
Ataria / *Átrio* **+info** p.30 orr.
- 20.00 Aurkezpena | Presentación**  
BI OIN BIRENTZAT  
**Olaia Valle – Gilles Noël**  
1.SOLAIRUKO Lantegi 1 / *Lantegi 1 1ª PLANTA*  
**+info** p. 46 orr.

# Urriak 11 Octubre

Igandea | Domingo

- 17.30 Jarduera paraleloa | Actividad paralela**  
EL PRINCIPIO ES COSA EXTRAÑA  
**Ana Buitrago (Granada)**  
Erabilera anitzeko Aretoa / *Sala polivalente*  
Sarrera doan lekua bete arte  
*Entrada libre hasta completar aforo* **+info** p. 52 orr.
- 18.45 Aurkezpena | Presentación**  
TIEMPO DUAL  
**Mar García – Gorka Pereira**  
Ataria / *Átrio* **+info** p. 22 orr.
- 19.25 Aurkezpena | Presentación**  
AURORA - OCASO  
**Beatriz Setién**  
-1 SOLAIRUKO Bastida Aretoa  
*PLANTA -1 sala Bastida* **+info** p. 38 orr.
- 20.00 Aurkezpena | Presentación**  
J-AHO!  
**Amaiur Luluaga**  
1.SOLAIRUKO Lantegi 1  
*Lantegi 1 1ª PLANTA* **+info** p. 34 orr.

<b>Dantzan Bilaka 2020</b>	<b>7</b>
<b>Aurkezpenak</b> <i>Presentaciones</i>	<b>13</b>
<b>Jarduera paraleloak</b> <i>Actividades paralelas</i>	<b>51</b>

## Dantzan Bilaka 2020

Dantzan Bilaka etengabe berrituz doan programa bat da, esparru bat zabaltzeko desiraz jaiotzen dena, esperientziak alderatzeko eta sorkuntza-lan koreografikoen prozesuak partekatzeke xedeaz, ideien eta hizkuntzen aniztasuna indartuz, eta era horretan Euskal Herriko koreografia-jarduna sustatuz.

Programa honek elkarrizketa erraztuko duen lan-testuinguru bat nahi du eskaini, Eusko Jaurlaritzak kulturaren sormena bultzatzeko ematen dituen diru-laguntzetan, koreografia-sorkuntzaren alorrean, hautatu diren pertsonen sorkuntza-prozesuak bultzatzeko, laguntzeko eta ikusarazteko xedeaz.

Bilboko AZKUNA ZENTROA erakundearen garatuko da edizio hau, eta aurkezpenen programarekin batera zenbait lantegi eta topaketa ere izango dira. Bederatzi artistak beren sorkuntza koreografikoko lanak partekatuko dituzte, zeinak zenbait formatutan aurkeztuko baitira AZKUNA ZENTROko espazioetan.

Dantzan Bilakaren jarduerak urte osoan zehar luzatzen dira, eta azken jardunaldi hauekin ixten dira, parte-hartzaileen aurkezpenekin. Aurten tailer hauetaz gozatu ahal izan dugu: Ana Buitrago (Granada), "Gorputz etena edo arretaren trazadurak" proposamenarekin; Thiago Granato (Brasil), "Zerk mugitzen ditu zure eskuak bestearen norantzan?" proposamenarekin; eta Carolina Mendonça (Brasil), "Sirenak" proposamenarekin.

Hamalagarren edizio honetan, urtean zehar garatu dituzten lanak erakutsiko dituzte Leire Amonarriz, Eneko Balerdi, Mar García eta Gorka Pereira, Gorka Gurrutxaga eta Nerea Gurrutxaga, Ziomara Hormaetxe, Amaïur Luluaga, Beatriz Setién, Marina Suárez eta Maria Stadlober, eta Olaia Valle eta Gilles Noël.

Sorkuntza-lan koreografikoko hiru egun hauek gozatu dituzuela espero dugu, eta elkarrekin partekatu ahal izango ditugula denontzat aberasgarriak izango diren esperientziak.

**Dantzan Bilaka 2020-ren koordinazio-taldea.**

*Dantzan Bilaka, es un programa en constante transformación que nace con el deseo de abrir un marco para contrastar experiencias y compartir procesos de creación coreográfica, potenciando la diversidad de ideas y lenguajes, y contribuyendo así a la práctica coreográfica en el País Vasco.*

*El programa quiere ofrecer un contexto de trabajo que facilite el diálogo, con el objetivo de apoyar, acompañar y visibilizar los procesos de creación de las personas seleccionadas en las Ayudas a Creación Coreográfica del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.*

*AZKUNA ZENTROA Bilbao acoge la presente edición, cuyo programa de presentaciones irá acompañado por una serie de talleres y encuentros. Nueve artistas compartirán sus procesos de creación coreográfica presentados en diversos formatos en los espacios de AZKUNA ZENTROA.*

*Las actividades de Dantzan Bilaka se extienden a lo largo del año y culminan en estas jornadas finales con las presentaciones de las participantes. Este año hemos podido disfrutar de los talleres de: Ana Buitrago (Granada) con su propuesta “Cuerpo Interrumpido o los trazados de la atención”; de Thiago Granato (Brasil) con su propuesta “¿Qué mueve tus manos en la dirección del otro?”, y el de Carolina Mendonça (Brasil) “Sirenas”.*

*En esta decimocuarta edición Leire Amonarriz, Eneko Balerdi, Mar García y Gorka Pereira, Gorka Gurrutxaga y Nerea Gurrutxaga, Ziomara Hormaetxe, Amaiur Luluaga, Beatriz Setién, Marina Suárez y Maria Stadlober, y Olaia Valle y Gilles Noël mostrarán los trabajos que han desarrollado a lo largo del año.*

*Esperamos que disfrutéis de estos tres días de creación coreográfica y que juntas podamos compartir experiencias que nos enriquezcan a todas.*

**Equipo de coordinación de Dantzan Bilaka 2020.**

Dantzan Bilaka egitasmoaren 14. edizioa xede honekin prestatu zen: esperientzia bat sor ziezaien bertan parte hartuko zuten bederatzi proiektuetako kideei; igurzte-harremanak sor zitezen haien artean, berdintasun-harremanak; parte-hartzaileek hausnarketak elkar trukatu zitzen eta izan zezaten testuinguru bateko «parte izatearen» nolabaiteko kontzientzia. Horretarako, erabaki genuen ezen programak zenbait egoera proposatu behar zituela, hartara, horien bidez, parte-hartzaileek espazioak, praktikak eta lan-prozesuak partekatu zitzen, eta beren artean jardun zitezen beren edukietan, estrategietan eta metodologietan sakonduz, betiere kontuan hartuz proiektu bakoitzaren ezberdintasun eta berezitasunak. Helburu hori lortzeko, hiru lantegi eta bi egonaldi antolatu ditugu azken hamar hileotan.

Ezin genuen irudikatu, etorkizun hurbilean, hauxe bera mugatuko, eragotziko eta debekatuko zutela: batera egotea, norberaren lana beste baten presentziaz eta gorpuztasunetik abiatuta pentsatzea, partekatutako une eta espazio batean, eta aintzat hartuz gure gorputzek irudikatu dezaketena. Eredu guztietan eta harreman-molde guztietan gertatu dira halakoak, baina egoerak are eragin handiagoa izan du gure jardunean, guretzat funtsezkoa baita presente egotea eta kontaktua izatea besteekin.

Edizio hau garatzen ari ginen bitartean, zailtasunak izan ditugu eta gauza batzuk ezin izan ditugu egin; batean eta bestean moldatu gara, baina programa aldatu dugu egoera berrira egokitzeko.

Artistek, eskuarki, salbuespenetik lan egiten dute gizartearekiko, zirrikituak bilatuz beti, beren lanari eta testuinguruari esanahia emateko eta hainbat testuinguru harremanetan jartzeko. Mugimendu baten eran irudika dezakegu esan berri dudan hori: mugimendu batek, bere bidea egitean, beti izango ditu beste mugimendu batzuk bere inguruan edo bere mugetan; haiekin harremanetan

egongo da eta bere baitan txertatuko ditu. Gaur egun, gertatzen ari den guztiaren konplexutasuna kontuan hartuta, zenbait praktika artistikok parez pare dute egoera ezezagun eta ziurtasunik gabeko bat, izan ere, praktika horien oinarria baita hainbat pertsona espazio eta une berean egotea, modu presentzialean.

Parte-hartzaileetako batek aipatu zidan zenbat muga eta debekuk osatzen zuten bere egoera konplexua. Zera erantzun nion: Eutsi!

Beraz, hurrengo urteko edizioari helduta, gaur egun Dantzan Bilakaren batzordea osatzen dugunok –Luciana Chierigati, María Ibarretxe eta Ion Munduate– zenbait aldatu egin dizkiogu 2021eko deialdiari, aurreko batzordeei lekukoa hartuz eta programan parte hartu dutenen ekarpenak aintzat hartuz. Haiei guztiei esker eta haien guztien bitartez, gaur egun, Dantzan Bilakaren barruan, hezkuntza lehenetsi nahi dugu, eta ikaskuntza sendotu, bizipenak partekatuz. Halaber, parte-hartzea zabalduko dugu: mugimenduari lotutako diziplinetan ez ezik, beste edozein diziplina edo eremutan jarduten diren pertsonen luzatuko diegu gonbita, baldin eta programa hau erakargarria eta aukerakoa iruditzen bazaie proiektu zehatz bat garatzeko.

Hainbat gauza aldatu ditugu, kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak proiektu hau garatzeko markatzen dituen helburuak eta desirak, eta espero dugu, aldaketa horiei esker, artista gazteagoak erakartzeko gai izango garela, eta, batez ere, etorkizunean esperientzia positibo bat sortzeko aukera sortuko dela.

Ion Munduate (2020ko abuztua)

*La 14ª edición de Dantzan Bilaka, se pensó con la intención de que generara a los participantes de los nueve proyectos seleccionados, una experiencia: producir relaciones de roce, de igualdad, de reflexiones compartidas y cierta conciencia de “pertenecer” a un contexto. Para eso, se decidió que el programa tenía que proponer situaciones que posibilitaran que sus participantes compartieran espacios, prácticas y procesos de trabajo, que se relacionarían a partir de la idea de profundizar en los contenidos y estrategias, en sus metodologías; así como, en la diferencia y singularidad de cada uno de sus proyectos. Con ese objetivo hemos propuesto tres talleres y dos periodos de residencia, a lo largo de los últimos diez meses.*

*No pudimos imaginar que precisamente, la idea de estar juntos, la necesidad de pensar tu trabajo a partir de la presencia y fisicidad del otro, en un presente y un espacio compartido, y de que lo que nuestros cuerpos pudieran proyectar, fueran a ser, precisamente, el objeto a restringir, a evitar, a prohibir. Esto ha sucedido en todos los ámbitos y en todos los aspectos de relación, pero esta circunstancia incide más si cabe, en nuestra práctica porque la presencialidad y el contacto son esenciales.*

*A lo largo del desarrollo de esta edición nos hemos encontrado con dificultades e imposibilidades que hemos ido manejando, pero que han producido variaciones en el programa para adecuarse a la nueva situación.*

*Los artistas en general trabajan desde una excepción en relación a la sociedad, buscando siempre los huecos para significar su trabajo y su contexto, y para poner en relación diferentes contextos. Si visualizamos lo que acabo de decir como un movimiento, un movimiento siempre traza su trayectoria en relación e integrando a otros movimientos que suceden a su alrededor e incluso en sus propios límites. En el momento actual, la complejidad de lo que está sucediendo, en relación a*

*algunas prácticas artísticas, cuya base se articula en un espacio y un presente compartido de manera presencial, se enfrenta a una situación desconocida e incierta.*

*Uno de los participantes, un día me hablaba de todas las restricciones e imposibilidades que configuraban la complejidad de su propia situación. Y le contesté: Eutsi!*

*Así que siguiendo con la próxima edición, la comisión actual de Dantzan Bilaka, integrada por Luciana Chieregati, María Ibarretxe y Ion Munduate, hemos lanzado una serie de cambios en la convocatoria 2021, recogiendo el testigo de comisiones anteriores y con las aportaciones de los participantes del programa. Gracias y a través de todos ellos, actualmente el objetivo es priorizar el aspecto formativo de Dantzan Bilaka, e intensificar el aprendizaje a través de la experiencia compartida. También, hemos querido extender la participación a artistas cuya formación, no sólo se haya dado en disciplinas de movimiento, sino en cualquier otra disciplina o experiencia, pero que para el desarrollo de un proyecto específico, pueda sentirse convocado y atraído por este programa.*

*Esperamos que estos cambios, que han sido producidos en estrecha relación con los objetivos y deseos, que el Gobierno Vasco marca para el desarrollo de este proyecto, puedan atraer la participación de más artistas jóvenes y, que sobre todo, pueda producir una experiencia positiva de futuro.*

*Ion Munduate (agosto 2020)*

# AURKEZPENAK PRESENTACIONES

**Leire Amonarriz**

**Eneko Balerdi**

**Mar García - Gorka Pereira**

**Gorka Gurrutxaga - Nerea Gurrutxaga**

**Ziomara Hormaetxe**

**Amaiur Luluaga**

**Beatriz Setién**

**Marina Suárez - Maria Stadlober**

**Olaia Valle - Gilles Noël**

**BIO.** Pedagogo, dantzaria eta ikertzailea. 2001. urtean Madrilera joan nintzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka bati esker: Dantza Garaikidea Ikasteko Beka. Oholtza gainean eta irakaskuntzan garatu dut nire ibilbide profesionala, bi eremuetan aldi berean, eta arreta berezia piztu dit dantzaren bidez egiten den hezkuntzak. 2013. urtean, “El lagarto baila” izeneko egitasmoa abiatu nuen, artea eta hezkuntza uztartzen dituen; horren bidez, nire irakaskuntza-lana zabaldu nahi dut, proposamen eszenikoak eginez.

***BIO.** Pedagoga, bailarina e investigadora. Me trasladé a Madrid en el año 2001 con una Beca para la Formación en Danza Contemporánea de la Diputación foral de Guipúzcoa. Mi experiencia profesional se ha desarrollado continuamente entre el ámbito escénico y docente y he desarrollado un interés especial en la educación a través de la danza. En el año 2013 puse en marcha “El lagarto baila”, proyecto artístico-educativo con el que busco ampliar mi acción docente a través de propuestas escénicas.*

## IzzzADI!

**IDEIA, ZUZENDARITZA, SORRERA**

**ETA DANTZA:**  
Leire Amonarriz

**SORRERA ETA DANTZA:**  
Alberto Almazán

**JANTZIAK ETA ESZENOGRAFIA:**  
Ramón Lertxundi, Ana del Burgo eta Playful Crochet.

**EGOITZAK ETA LAGUNTZAK:**  
Verena Maschat, La mínima, Dantzagunea, Canal dantza-zentroa, Eusko Jaurlaritza.

**ARGAZKILARITZA:**  
Luisca Cuevas

**ESKERRIK ASKO IZASKUN LAPAZARI, BIDAIA HONEN HASIERAN LAGUNTZEAGATIK.**

**KONTAKTUA:**  
leire.a.lecuona@gmail.com

**IDEA, DIRECCIÓN, CREACIÓN E INTERPRETACIÓN:**  
Leire Amonarriz

**CREACIÓN E INTERPRETACIÓN:**  
Alberto Almazán

**VESTUARIO Y ESCENOGRAFÍA:**  
Ramón Lertxundi, Ana del Burgo y Playful Crochet.

**RESIDENCIAS Y APOYOS:**  
Verena Maschat, La mínima, Dantzagunea, Centro de Danza Canal, Eusko Jaurlaritza.

**FOTOGRAFÍA:**  
Luisca Cuevas

**GRACIAS A IZASKUN LAPAZA POR ACOMPAÑARME EN EL INICIO DE ESTE VIAJE.**

**CONTACTO:**  
leire.a.lecuona@gmail.com

*«Zer zuhaitz loretsutik,  
ez dakit,  
baina zer-nolako lurrina!»  
(Matsuo Bashô)*

“Haiku” izeneko japoniar poesia da proiektu honen inspirazio-iturria; poesia horrek unearen esperientzia islatzen du modu soil eta sakonean. Iruditzen zait ideia horrek bat egiten duela munduari begiratzeko moduarekin: unean unekoa bizitzen da, haurtxoek bezala. Nolanahi ere, uste dut helduak ere gai izango direla ibilbide koreografikoan gertatzen denaz gozatzeko, baldin eta prest badaude zentzumenerkin hautemateko eta adimenari lo egiten uzteko.

Sormen-prozesuan, eraldatu egin da zentzumenei, ikusmenari eta entzumenari dagokion esperientzia bat eraikitzeko gogoia, eta, hein batean, norabidea galdu da. Ama izatearen esperientziak zuzenean eragin dio ikerketari: ama izan naiz duela gutxi, eta horren ondorioz bizi izan ditudan emozioek, desirak, hausnarketek eta sentimenduek bilaketa koreografikoari eragin diote. COVID-19aren etorrerak, orobat, proposamena aldatu du: hasiera batean, gertuko gauza bat izan behar zuen, elkarreraginean jardutekoa; gero, ordea, segurtasun-distantzia hartu du, eta ikuspegi plastiko berri batera hurbiltzea ekarri du horrek.

Une honetan, “IzzzAdi!” obraren izaera bidegurutze batean dago, eta, beharbada, bidea ehuntzea da kontua.



*«¡De qué árbol en flor  
no sé,  
pero qué perfume!»  
(Matsuo Bashô)*

*La fuente de inspiración de este proyecto es la poesía japonesa "haiku", que retrata la experiencia del momento de una manera sencilla y profunda. Creo que esa idea conecta con la manera de mirar el mundo, desde la vivencia del momento presente, característica de los bebés y la primera infancia. Sin embargo, apuesto también a que el adulto, dispuesto a percibir con los sentidos abiertos y el juicio dormido, pueda disfrutar de lo que acontece en el recorrido coreográfico.*

*La inquietud de construir una experiencia sensorial, visual y auditiva, se ha transformado durante el proceso creativo y se ha perdido en cierta medida el rumbo. La experiencia de ser madre ha atravesado directamente la investigación: las emociones, deseos, reflexiones y sentimientos vividos con mi reciente maternidad han influido en la búsqueda coreográfica. La llegada del COVID-19 ha dado también un giro a la propuesta: lo que inicialmente se planteó como próximo e interactivo ha tenido que adoptar su distancia de seguridad, lo que ha supuesto un acercamiento a una nueva perspectiva plástica. La personalidad de "IzzzAdi!" se encuentra en este momento en un cruce de caminos y, tal vez, se trate únicamente de tejer el camino.*



**BIO.** Dantza Erresuma Batuan ikasi zuen (BA-Hons- in Contemporary Dance, LCDS The Place, 2004-2007) eta Giuliana Mayo, Martine Pisani, Mikel Aristegi, Atxarte eta Oihane Lopez de Munainekin aritu zen, besteak beste. 2010ean Natalia Mongeren Organik dantza-antzerki konpainian hasi zuen bere ibilbidea eta “Maniatic@s” (2010), “Carneros” (2012) eta “Txapeldun” (2014) proiektuetan parte hartu. Bi dantza lan ditu: “Dantzan Banaka” (2009) eta “Lakua” (2011). Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea da.

**BIO.** estudió danza en el Reino Unido (BA-Hons- in Contemporary Dance, LCDS The Place, 2004-2007) y ha trabajado, entre otros, con Giuliana Mayo, Martine Pisani, Mikel Aristegi, Atxarte y Oihane Lopez de Munain. En 2010, comenzó su andadura en la compañía de danza Organik de Natalia Monge, y participó en los proyectos “Maniatic@s” (2010), “Carneros” (2012) y “Txapeldun” (2014). Ha realizado dos trabajos de danza: “Dantzan Banaka” (2009) y “Lakua” (2011). Actualmente es docente e investigador en la Universidad de Deusto.

## DOLOREX

### **SORTZAILEA:**

Eneko Balerdi Eizmendi.

### **DANTZA, ARGIA ETA SOINUA:**

Ainhoa Alberdi Gisasola eta Eneko Balerdi Eizmendi.

### **IRAUPENA:**

20 minutu, hiru orduz etengabe.

### **KONTAKTUA:**

eneko.balerdi@gmail.com

### **CREACIÓN:**

Eneko Balerdi Eizmendi.

### **DANZA, LUZ Y SONIDO:**

Ainhoa Alberdi Gisasola y Eneko Balerdi Eizmendi.

### **DURACIÓN:**

20 minutos. Se presentará ininterrumpidamente durante tres horas.

### **CONTACTO:**

eneko.balerdi@gmail.com

Mina da lan honen abiapuntua. Gorputzean nolako deiarra egiten duen galdetu nahi da, eta minaren faseak, iraupenak, formak, argiak edo koloreak, zein soinuak, uhinez uhin, egiten duten gorputzaren konkista irudikatzen du. Izan bortxaz zein norbere erabakiz sortua: zein da minak egiten duen bidea? “DOLOREX” minaren eroalea da. Emakumeek jasaten duen indarkeriak duen minaren eramaile izateko sortu zen. Lehen agerpen horren ondoren, ordea, hainbat minen inguruko kontzientziak esnatzea izan du helburu bere performance zirikatzaile eroalearekin. “MINA” isiltzean agertzen da: gelditzean eta iluntzean. Egungo gizarteak arrapaladan ibiltzeko joera du, minarekin topo egiteari beldur, eta minarekin topo eginez gero, berau isiltzeko joera du: minari entzuteko beldurra eta minaren erantzukizuna ukatzeko joera.

*El dolor es el punto de partida de este trabajo. Queremos preguntar qué tipo de grito crea en el cuerpo y representar la conquista del cuerpo que realizan las fases, la duración, las formas, las luces, los colores y el sonido del dolor, onda tras onda. Tanto a la fuerza como por voluntad propia: ¿Qué camino traza el dolor? “DOLOREX” es quien porta el dolor. Se creó para que portase el dolor causado por la violencia que sufren las mujeres. Sin embargo, tras esa primera aparición, y mediante su performance provocadora y portadora, ha tenido como objetivo despertar la conciencia sobre otros dolores. “EL DOLOR” aparece al callarse: al parar y cuando oscurece. La sociedad actual tiende a ir muy deprisa, por miedo a encontrarse con el dolor, y si se encuentra con él, tiende a ocultarlo: temor a escuchar al dolor y tendencia a negar la responsabilidad para con él.*



**BIO. Mar García** burgoseko dantza-eskola profesionalen ikasi zuen; 2011n amaitu zituen ikasketak. Dantzaria eta irakaslea da; horrez gainera, koreografia-zuzendari moduan jardun da bi emanaldi hauetan: “Julietas, Romeo Circo”, Markeliñe konpainiarena, eta “Aukerak”, The Funes Troup konpainiarena.

**Gorka Pereira** 90eko hamarkadan hasi zen zirkuarekin zaletzen; La Arena zirku-eskolan ikasi zuen, Buenos Airesen, non akrobaziak eta malabarrak egiteko prestakuntza integrala jaso baitzuen. 2005. urtean, etxera itzuli, eta “Debote Enbote” zirku-konpainia sortu zuen, Luciano Mezzotero-rekin batera. 2012an, berriz, “Zirkozaurre” eratu zuen, zirku-konpainia dena aldi berean. Bestalde, 2012an bertan osatu zuen, Rodrigo Lacasa eta Xabier Larrearekin batera, beste zirku-konpainia bat: “The Funes Troup”.

***BIO. Mar García** recibe su formación en la escuela profesional de danza de Burgos en el año 2011. Además de intérprete y docente, ha trabajado como directora coreográfica en los espectáculos “Julietas, Romeo Circo” de la compañía Markeliñe y “Aukerak” de la compañía The Funes Troup.*

***Gorka Pereira** comienza a sentir interés por el circo en los 90, formándose en la escuela de circo La Arena de Buenos Aires, donde recibe formación integral en disciplinas como acrobacias y malabares. A su vuelta crea la compañía de circo “Debote Enbote” en el año 2005 junto a Luciano Mezzotero. En 2012 funda “Zirkozaurre”, centro de artes circenses, además de su propia compañía. Es también en 2012 cuando junto con Rodrigo Lacasa y Xabier Larrea fundan la cía de circo “The Funes Troup”.*

## TIEMPO DUAL

**IDEIA ETA ZUZENDARITZA:**  
Mar García eta Gorka Pereira.

**EKOIZPENA:**  
Zirkozaurre

**DANTZARIAK:**  
Ursua Gaminde, Javier González, Imanol Suso, Iñigo Arroyo, Pablo Miguel Caceres, Gorka Pereira eta Mar García.

**MUSIKA:**  
Ignacio Libano Bravo.

**IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA:**  
Haritz Petralanda.

**IRAUPENA:**  
20 minutu, gutxi gorabehera.

**HARREMANETARAKO:**  
marmotilla23@gmail.com  
zirkozaurre@gmail.com

Gorputzaren mugimendua, malabarren manipulazioa, gorputzen beren manipulazioa eta zirku eta dantza uztartzea, diziplina bakarra balira bezala: premisa horietatik abiatuta, Gorka Pereira eta Mar García ikertzen hasi ziren, ea nola eragiten duen denborak gure bizimoldean, espazioan bizitzeko dugun moduan eta gure bizitzan barna igarotzeko dugun maneran, eta aztertu zuten, orobat, ea nola fusionatu daitezkeen bi diziplinak. Bi artistek abiatu zuten ikerketa, “Zirkozaurreren” babesarekin; ondoren, ikerketa beste batzuekin partekatzeko gogoia piztu zitzairen, eta, gerora, artista gehiago sartu zen tartean, mugimenduari eta malabarrei lotutako lantegien bidez. Ikus-entzunezko materialak eta artisten lanaren lagin txiki bat erakutsiz, jendeari helarazi nahi diogu nolako sinergiak sortu ditugun bi diziplinen eta denboraren hautematearen artean. Horrela, gai izango gara ulertzeko zer mundu irekitzen zaizkien dantzari eta malabar-artistei, bi diziplinek lankidetzan dihardutenean.

**IDEA Y DIRECCIÓN:**  
Mar García y Gorka Pereira.

**PRODUCCIÓN:**  
Zirkozaurre

**INTÉRPRETES:**  
Ursua Gaminde, Javier  
González, Imanol Suso,  
Iñigo Arroyo, Pablo Miguel  
Caceres, Gorka Pereira, Mar  
García.

**MÚSICA:**  
Ignacio Libano Bravo

**MATERIAL AUDIOVISUAL:**  
Haritz Petralanda  
HYPERLINK

<https://enebegirada.wixsite.com/enebegirada>

[\https://enebegirada.wixsite.com/enebegirada](https://enebegirada.wixsite.com/enebegirada)

**DURACIÓN:**  
20 mins aprox.

**CONTACTO:**  
marmotilla23@gmail.com  
zirkozaurre@gmail.com

*El cuerpo en movimiento, la manipulación de objetos de malabar, la manipulación de los propios cuerpos y la integración de ambas disciplinas (circo y danza) como si fueran una sola, son las premisas desde las que Gorka Pereira y Mar García comienzan a investigar como el tiempo influye en nuestras maneras de vivir, habitar y transitar a lo largo de nuestras vidas y cómo ambas disciplinas se pueden fusionar. Esta investigación comienza desde los dos artistas con el apoyo de "Zirkozaurre" y surge la inquietud de compartirla involucrando más tarde a través de un laboratorio de movimiento y malabar a otros artistas. Queremos hacer llegar al público a través de material audiovisual y una pequeña muestra de las artistas, qué sinergias hemos conseguido encontrar entre ambas disciplinas y la percepción del tiempo. Podremos entender que mundos se abren para bailarinas y malabaristas cuando ambas disciplinas trabajan en común.*



**BIO. Gorka Gurrutxaga Arruti.** Dantza, idazketa eta marrazkigintza ditu langai. Dantzari gisa Daniel Linehan, Claire Croizé, Matteo Fargion, Vera Tussing, Igor Calonge eta Miet Warlop-ekin du lan. Bere Idazlanak irratsaio eta argitalpen ezberdinetan agertu dira.

**Nerea Gurrutxaga Arruti.** Dantzan eta sortzen aritzen da. Dantzari gisa Scottish Dance Theatre, Curious Seed eta Barrowland Ballet konpainiekin egin du lan Eskoazian, eta baita Lucia Kichham eta Andrés Alarcón koreografoekin ere, Irlandan eta Euskal Herrian hurrenez hurren. “2 squared by UTOPISTAS” eta “Lehio zikin, zeru garbi” lanetan parte hartu du sortzaile eta dantzari gisa.

**BIO. Gorka Gurrutxaga Arruti.** *La danza, la escritura y el dibujo son su medio de trabajo. Como intérprete ha trabajado con Daniel Linehan, Claire Croizé, Matteo Fargion, Vera Tussing, Igor Calonge y Miet Warlop. Sus escritos han aparecido en varias radios y publicaciones.*

**Nerea Gurrutxaga Arruti.** *Ha trabajado en Escocia con las compañías: Scottish Dance Theatre, Curious Seed y Barrowland Ballet. También con Lucia Kichham en Irlanda y con Andrés Alarcón en el País Vasco. Como creadora e intérprete ha formado parte de “2 squared by UTOPISTAS” y “Lehio zikin, zeru Garbi”.*

## BISONTE BAT BIHOTZ ERIARENTZAT

### EGILEAK:

Gorka Gurrutxaga Arruti,  
Nerea Gurrutxaga Arruti.

### JANTZIAK:

Lurdes Arruti Mujika.

### EGOITZAK:

Azala (Lasierra) eta  
Dantzagunea (Errenteria).

### ESKERRIK BEROENAK:

Aitor Arruti eta Laura-María  
Poletti.

### AUTORES:

Gorka Gurrutxaga Arruti,  
Nerea Gurrutxaga Arruti.

### VESTUARIO:

Lurdes Arruti Mujika.

### RESIDENCIAS:

Azala (Lasierra) y  
Dantzagunea (Renteria).

### AGRADECIMIENTOS:

Aitor Arruti y Laura-María  
Poletti.



Zaldi batekin egin genuen amets.  
Urdina den zaldia, zaldi urdin bat.  
Baina bisontea zen galopan ihes zijoana,  
bisonte gorri eta morea  
eta ametsa urtu zitzaigun  
ametsak alde egin zigun  
urrun dauden lurretara.



*Soñamos con un caballo.  
Azul, un caballo azul.  
Pero era un bisonte  
quien se escapaba al galope,  
un bisonte rojo, morado.  
y se nos derritió el sueño,  
se nos deslizó  
hacia tierras lejanas.*

**BIO.** Gernikako koreogarfa eta dantzaria da. Dantza garaikideko ikasketak Frantziako, Nizan, Sophia Antipollis Unibertsitatean eta Cannes-eko Ecole Superieure de Danse-en burutu zituen. 2014an bere konpainia propioa sortu zuen Ziomara Hormaetxe Company deiturikoa.

Bere lanak dantza garaikidea eta 3D, videomapping eta video interaktiboa bezalako teknologia berriak uztartzen ditu. 4 pieza sortu ditu: “K-otika in Progress”, “Symbiosis”, “Biopiracy” Hego Koreako New Dance Festival ean eta EEUU ko Detroit City Dance Festival ean estrenaitua.

“Ahotsak” kaleko bere lehen pieza da.

***BIO.** Nacida en el propio Gernika, Ziomara Hormaetxe es coreógrafa y bailarina. Estudió danza en la Universidad Sophia Antipolis de Niza y en el Ecole Superieure de Danse en Cannes. En 2014 creó su propia compañía, “Ziomara Hormaetxe Company”.*

*Su trabajo combina la danza contemporánea y las nuevas tecnologías como el videomapping, 3D y el video interactivo. Hasta ahora ha creado cuatro piezas: “K-otica in Progress”, “Symbiosis”, “Biopiracy” que se estrenó en el New Dance Festival de Corea del Sur y el Detroit City Dance Festival, EEUU.*

*“Ahotsak” es su primera pieza de calle .*

## AHOTSAK

### IDEIA:

Ziomara Hormaetxe.

### KOREOGRAFIA ETA DANTZARIAK:

Ziomara Hormaetxe eta Akira Yoshida.

### MUSIKA:

Aitor Etxebarría, Dodi.

### TESTIGANTZA:

“Tia Luisita” Luisa Garcia Goigana.

### IRAUPENA:

14 minutu.

### EGOITZA ARTISTIKOAK:

Biarritzeko Ballet Malandain, Dantzagunea Donostia – San Sebastian, Astra Gernika.

**EUSKO JAURLARITZAREN DIRULAGUNTZAREKIN, DANTZA HIRIAN-EK KO-PRODUZITUA ETA GERNIKAKO KULTURA SAILAREN LAGUNTZAREKIN.**

### IRUDIA:

Sergio Marcos

### KONTAKTUA:

ziomarahormaetxe@gmail.com

Nire aitona-amonenei zuzenki egiten diedan omenaldia bezala planteatzen dut pieza hau. Gernikako bonbardaketa hain hurbiletik bizi izan zuen belaunaldi horretako biloba naiz.

“Ahotsak” memoriako labirintoetan zehar eginiko ibilbide bat da, denborak desegindako oroimenetan barrena; sarritan ahazturan galduta gelditzen diren bide horietan egindako igarotzea. Gerrak sortzen duen minaz, injustiziaz, bakardadeaz eta suntzipenaz mintzo da. Gerraren zentzugabekeriak.

Ahotsen bitartez, isiltasuna hitzez betetzen da. Testigantzek begiak zabalik amesteko gaitasuna pizten digute, gogoetarako grina sortuz. Horrela, gizarte justuago eta gizatiarra goa eraikitzeak aukera berriak ahalbidetuz.

Obra hau, itxaropenari egindako kantu bat da, baina batez ere, Gernikako sarraski hura bizi izan zutenen lekukotza argitan jartzeko ahalegin bat da.

Beraien ondorengo bezala, pertsonalki beharrezkoa izan dudana topaketa bitala izan da, emozioz beterikoa. Aurkipen honek, nire nahigabea adieraztera eramana nau, ez bakarrik Gernikan gertatutakoarekiko. Gaur egun, Gernika asko ari dira gertatzen munduan zehar.

Aurkezten ditudan Ahotsak bake eske oihuka egiten dute, esperantzaz beteak.

Ahots hauek etorkizuna dira.



**IDEA:**  
Ziomara Hormaetxe

**COREOGRAFÍA Y BAILARINES:**  
Ziomara Hormaetxe y Akira Yoshida.

**MÚSICA:**  
Aitor Etxebarria, Dodi.

**TESTIMONIO:**  
"Tia Luisita" Luisa García Goigana.

**DURACIÓN:**  
14 minutos.

**RESIDENCIAS ARTÍSTICAS:**  
Ballet Malandain Biarritz,  
Dantzagunea Donostia – San  
Sebastián, Astra-Gernika.

**SUBVENCIONADO POR EL GOBIERNO  
VASCO, CO-PRODUCIDO POR  
EL FESTIVAL DANTZA HIRIAN  
Y EN COLABORACIÓN CON EL  
AYUNTAMIENTO DE GERNIKA.**

**IMAGEN:**  
Sergio Marcos

**CONTACTO:**  
ziomarahormaetxe@gmail.  
com

*Como originaria de Gernika, la pieza es un homenaje a mis abuelos. Aquellos que fueron víctimas del bombardeo de Gernika.*

*La pieza esta creada a través de los testimonios de las víctimas del bombardeo. Como nieta de mis abuelos, seré la última generación que reciba éstos testimonios de manera directa. He aquí también la motivación de crear esta pieza en memoria de ellos.*

*"Ahotsak", es un recorrido por los laberintos de la memoria, los caminos que a menudo se columpian y se pierden en el olvido, en las mentes aniquiladas por el tiempo. Hablan del vacío de la destrucción, de la soledad, la injusticia, el dolor y el gran absurdo de las guerras.*

*Escuchando las voces, el silencio se llena de palabras, de testimonios que nos llevan a la reflexión, a la comprensión y a la capacidad de soñar despiertos, para reconstruir una sociedad más justa y más humana.*

*Esta obra pretende ser sencillamente una oda a la esperanza viva a pesar de la muerte, pero sobre todo, una luz al testimonio de los últimos supervivientes de aquella masacre acaecida en Gernika.*

*Como descendiente, es un reencuentro vital, personal y necesario, con el filo sutil de las más profundas emociones, que me empujan a narrar y a manifestar mi contrariedad, no sólo hacia algo que ocurrió, sino hacia lo que ocurre actualmente en muchos lugares del mundo.*

*Son las voces que nos hablan del futuro, y que gritan por la paz y la esperanza.*



**BIO.** (Anoeta, 1992). Umea zela hasten da euskal dantzaren munduan murgiltzen eta urte askoz aritu ostean, balleta eta dantza garaikidea ezagutzen ditu, “Haatik Dantza Konpainian”. Dantza garaikidean gehiago sakontzeko, Bartzelonara jotzen du eta bertan ezagutzen ditu Clàudia Gómez eta Montse Álvarez. Bartzelonatik bueltan, elkartu eta “J-AhO!” proiektua martxan jartzen dute, Sortutakoak programari esker. Aterpean 2019 laguntza jasotzean “Bailar La Locura” dokumentalaren ideia sortzen da (Marta Espar eta Maiol Virgili, grabaketa-prozesuan oraindik); diagnostiko psikiatrikoa duten hiru emakumerekin “JAhO!” piezaren sorkuntza prozesua elkarbanatzen da bertan.

**BIO.** (Anoeta, 1992). *Comienza en el mundo de la danza tradicional y después de muchos años en ello, conoce el ballet y la danza contemporánea, en “Haatik Dantza Konpainia”. Se muda a Barcelona para formarse en danza contemporánea y conoce a Clàudia Gómez y Montse Álvarez. Ponen en marcha el proyecto “J-AhO!”, gracias a “Sortutakoak”. Cuando reciben la ayuda Aterpean surge la idea del documental “Bailar La Locura” (en proceso); muestra la interacción de tres mujeres con diagnóstico psiquiátrico en la creación de “J-AhO!”.*

## J-AhO! NOR DA EROA, ZU EDO NI?

### FORMATOA:

kalea edo espazio ez-formala.

### ZUZENDARITZA:

Amaiur Luluaga

### SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA:

Amaiur Luluaga, Montse Álvarez, Clàudia Gómez.

### ZUZENDARITZA ARTISTIKOA:

Myriam Perez

### ARGAZKIAK ETA BIDEOA:

Iurre Aranburu.

### MUSIKA:

Pascal Gaigne (konposizio propioa), Grandbrothers.

### MUSIKA EDIZIOA:

Iñaki Plaza

### POESIA ETA AHOTSAK:

Itziar Vaquero, Alba Coll, María Manonelles.

### SORKUNTZA ERRESIDENTZIAK:

Dantzagunea (Sortutakoak 12), CCN Malandain Biarritz (Aterpean 2019), Azkuna Zentroa-Dantzan Bilaka 2020ren esparruan.

### BABESA:

Anoetako Udala (Gipuzkoa), documental Bailar La Locura (Marta Espar eta Maiol Virgili).

### IRAUPENA:

10 minutu.

### KONTAKTUA:

amaiurluluaga@gmail.com

Erotasuna eta normaltasuna  
...hain lausoa da muga...  
ezberdintasun txiki baina aldi berean erraldoia.  
...  
“Normala”?  
Zure erabakia al da “normala” izatea? Ala gizarteak  
erabakitzen du zuek?  
...  
Jarrai ezazu.  
Ez ihesik egin eta egin irribarre.  
Hor dago bidea.

“J-AhO!” Erotasun eta normaltasunaren arteko mugaren hausnarketatik jaiotzen den proiektua da. Non dago muga hori? Erotasuna normaltasunetik desbideratzen den horri atxikitzen diogu, baina zer da “normaltasuna”? Nork erabakitzen du zer den “normala”? “Normala” kontzeptua komunitatean ordena ezartzeko gizarteak eraikitako konstruktua bat besterik ez da. Izan al daiteke erotasuna, beraz, ezberdina dena nabarmentzeko eta ondorioz, zure egoera egokia edo/eta normala dela adierazteko gizartearen kontrolerako sortutako herraminta bat? Zenbat aldiz galdetu diogu geure buruari geure normaltasun/erotasun maila?

Sorkuntza honen hirugarren lan-aldi honetan, dramaturgia eta koreografia mailan lana eraldatzeaz gain, “Bailar La Locura” dokumentalaren grabazioa amaituko da.

**FORMATO:**  
calle y/o espacio no  
convencional.

**DIRECCIÓN:**  
Amaiur Luluaga.

**CREACIÓN E INTERPRETACIÓN:**  
Amaiur Luluaga, Montse  
Àlvarez, Clàudia Gómez.

**ASESORAMIENTO ARTÍSTICO:**  
Myriam Perez

**FOTOGRAFÍA Y AUDIOVISUAL:**  
Iurre Aranburu

**MÚSICA:**  
Pascal Gaigne (composición  
propia), Grandbrothers.

**EDICIÓN MUSICAL:**  
Iñaki Plaza

**POESÍA Y VOZ:**  
Itziar Vaquero, Alba Coll,  
María Manonelles.

**RESIDENCIAS DE CREACIÓN:**  
Dantzagunea (Sortutakoak  
12), CCN Malandain Biarritz  
(Aterpean 2019).

**CON EL APOYO DE:**  
Ayuntamiento de Anoeta  
(Guipúzcoa), documental  
Bailar La Locura (Marta  
Espar y Maiol Virgili).

**DURACIÓN:**  
10 minutos.

**CONTACTO:**  
amaiurluluaga@gmail.com

*Cordura y locura  
...es tan difuso el límite...  
una pequeña pero al mismo tiempo gran diferencia.*

*...  
¿"Normal"?  
¿Es tu decisión ser "normal" o lo decide la sociedad por  
ti?*

*...  
Tú sigue.  
No te escapes y sonrío.  
Por ahí es el camino.*

*"J-AhO!" surge de una reflexión sobre el límite entre la  
cordura y la locura. ¿Dónde está este límite? Solemos  
asociar la locura con aquello que se desvía de la norma,  
pero ¿Qué es normal? ¿Quién decide qué es normal?  
El concepto "normal" es únicamente un constructo  
establecido por la sociedad con el fin de crear un orden  
en la comunidad. ¿Podría ser la locura, entonces, una  
herramienta de control social para señalar lo diferente  
y por ende sentir que tu situación es la correcta y/o  
normal? ¿Cuántas veces nos hemos cuestionado, a nivel  
individual, nuestra propia locura/cordura?*

*En este proceso de creación, además de transformar la  
pieza a nivel dancístico y dramaturgico, se finalizará la  
grabación del documental "Bailar La Locura".*



**BIO.** (Donostia, 1980). 2005ean Arte Ederretako lizentziatura amaitu zuen EHUn; ondoren, Frantziara joan zen bizitzera. Bere piezak sortzen ditu eta dantzari gisa jarduten da hainbat konpainiatan. Horien artean, nabarmentzekoa da “Germinal” izeneko pieza, l’Amicale de Production konpainiarekin egin zuena; nazioarteko jaialdietan erakutsi zuten: Singapurren, Japonian...

2013an Euskal Herrira etorri zen berriz. Itzulerak bat egin zuen etapa berri batekin: arte eszenikoez aparte, testuak, marrazkiak eta bestelako formatuak ekoizten ditu.

**BIO.** (Donostia, 1980). En 2005 se licencia en BBAA en la UPV, de ahí se muda a Francia.

*Crea sus propias piezas y trabaja como intérprete en varias compañías, siendo la más destacada la pieza “Germinal” de l’Amicale de Production, con la que gira en festivales internacionales, Singapur, Japón...*

*En 2013 vuelve a instalarse en el País Vasco. Esta vuelta coincide con una nueva etapa que tiene como resultado la producción de textos, dibujos y otros formatos a parte del de las artes escénicas.*

## AURORA-OCASO

**IDEIA ETA TESTUA:**

Beatriz Setién

**DANTZARIAK:**

Hannah Berry eta Beatriz Setién.

**ESPAZIOEN LAGAPENA:**

Tabakalera, Dantzagunea.

**ESKER ONA:**

María Ibarretxe, Ane Zaldibar eta Maddi Zumalabe.

**IRAUPENA:**

15 minutu.

**KONTAKTUA:**

setienbeatriz@gmail.com

**IDEA Y TEXTO:**

Beatriz Setién

**EN ESCENA:**

Hannah Berry y Beatriz Setién.

**CESIÓN DE ESPACIOS:**

Tabakalera, Dantzagunea.

**AGRADECIMIENTOS:**

María Ibarretxe, Ane Zaldibar y Maddi Zumalabe.

**DURACIÓN:**

15 minutos.

**CONTACTO:**

setienbeatriz@gmail.com

### Prozesuari buruzko testua:

